ZIGOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ZIGOITIA
ARABA
DATA / FECHA 14 FEB 2024
SARRERA/E ... RADA ...
IRTEERA / SALIDA ... 102

T. Ajdo

**Espediente-zk.:** 118/2024

**Prozedura:** Zigoitiko Udalean baratze ekologikoak egiteko partzelak erabiltzeko baimena lortu ahal izateko pertsona fisiko eta elkarteentzako 2024ko deialdi publikoa.

**Nº expediente**: 118/2024

**Procedimiento**: 2024 Convocatoria pública destinada a las personas físicas y asociaciones para la obtención de autorización de uso de parcelas para huertos ecológicos del Ayuntamiento de Zigoitia

| IRAGARKIA | ANUNCIO |
|---|---|
| 2024ko otsailaren 14ko 78 zenbakidun Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, baratze ekologikoak egiteko udal-partzelak erabili ahal izateko baimenak lortzeko deialdi publikoa onetsi zen, eta honako hau zen horren edukia: | Mediante Resolución de Alcaldía número 78 de 14 de febrero de 2024 se aprobó la convocatoria pública para el otorgamiento de autorizaciones de uso parcelas municipales con destino de huertos ecológicos, con el siguiente contenido: |
| Ikusi da 2023ko urriaren 23an, Udalbatzaren erabakiaren bidez, Zigoitiko baratze ekologikoen erabilera eta funtzionamendua arautzeko ordenantza onetsi zela; ordenantza hori osorik argitaratu zen 2024ko urtarrilaren 29ko 12. zenbakiko ALHAOn. | Visto que con fecha 23 de octubre de 2023 por Acuerdo del Pleno de la Corporación fue aprobada la ordenanza reguladora del uso y funcionamiento de los huertos ecológicos de Zigoitia, siendo publicada íntegramente en el BOTHA nº 12 de fecha 29 de enero de 2024. |
| Ikusi da Zigoitiko Udalak gune bat egokitu duela baratze ekologiko horiek bertan egoteko, ingurumen-hezkuntzako eta tokiko jasangarritasuneko balioak hedatzeko funtsezko xedearekin. | Visto que el Ayuntamiento de Zigoitia ha acondicionado un espacio para albergar huertos ecológicos con el objetivo fundamental de extender valores de educación ambiental y sostenibilidad local. |
| Aintzat hartu da Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 77. artikulua. | Considerando el artículo 77 del Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales. |
| Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.q) artikuluan oinarrituta emandako eskumenak erabiliz, honako hau **ERABAKI DUT:** | En virtud de las competencias que tengo atribuidas en base al artículo 21.1.q) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Base de Régimen Local **RESUELVO:** |
| **LEHENENGOA.-** Udal-partzelak baratze ekologiko gisa erabiltzeko baimenaren deialdia onestea, Erabaki honen Eranskinean jasotako testuarekin. | **PRIMERO.** Aprobar la convocatoria para la autorización de uso de parcelas de titularidad municipal como huertos ecológicos con el texto que figura en el Anexo de la presente Resolución. |
| **BIGARRENA.-** Deialdia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, baita Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian argitaratzea ere. | **SEGUNDO.** Publicar la convocatoria en el Boletín Oficial de Territorio Histórico de Álava, en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y página web municipal. |
| **ERANSKINA** | **ANEXO** |
| **Zigoitiko Udalean baratze ekologikoak egiteko partzelak erabiltzeko baimena lortu ahal izateko pertsona fisiko eta elkarteentzako deialdi publikoaren oinarriak. 2024ko deialdia** | **Bases de la convocatoria pública destinada a las personas físicas y asociaciones para la obtención de autorización de uso de parcelas en los huertos municipales del Ayuntamiento de Zigoitia. Convocatoria de 2024** |
| Zigoitiko baratze ekologikoak funtsezko | Los huertos ecológicos de Zigoitia |



Javier Gorbeña García (1 de 1)
Alcaldía
Fecha Firma: 14/02/2024
HASH: cb036ca3195015866195a5f6737a28db

Cód. Validación: 36PXPMWYW4PLWQSCY9Z3CTTNZ
Verificación: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 1 de 6

elementuak dira ingurumen-hezkuntzako eta naturarekiko errespetuaren balioak bultzatu eta sustatzea, baita pixkanaka autoekoizpen-estrategiak garatu eta jasangarritasunerako sentsibilizazioa areagotzeko ere. Gure gizartean elikadurako burujabetza, tokiko produktuak, elikadura osasungarria, osasunerako hezkuntza eta antzeko oinarrizko kontzeptuak txertatzea, hein handi batean, mota horretako ekimenei esker da.

Tokiko jasangarritasunaren esparruan aurrera egiteko ekimen horien artean, Zigoitiko baratze ekologikoek garrantzi berezia dute. Hasiera batean, hogei partzela dira, partikularrek aldi baterako erabiltzeko baimentzeko, baina, beharra sortuz gero eta Udalak hala erabakitzen badu, baratze ekologiko gisa erabiltzeko partzela gehiago jartzeko aukera dago.

Zigoitiko baratze ekologikoen erabilera eta funtzionamendua arautzen duen udal-ordenantzan oinarrituta, Zigoitiko Udalak honako deialdi publiko hau egin du, udal-baratzeetan dauden banakako partzelak erabiltzeko baimena lortzeko; baratze horiek Eribeko errepidean daude, Gopegin.

**Lehenengoa.- Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da Zigoitiko Udalak Gopegiko udal-baratzeetan dauden partzela erabilgarrien erabilera baimentzea, hala eskatzen duten eta deialdi honetan eskatutako eta Zigoitiko baratze ekologikoen erabilera eta funtzionamendua arautzeko udal-ordenantzan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten pertsona fisiko eta elkarteei.

Udal baratze ekologikoen antolaketa, funtzionamendu eta diziplina araubidea Zigoitiko baratze ekologikoen erabilera eta funtzionamendua arautzen duen Ordenantzan jasota dago. Ordenantza hori Udalbatzak onartu zuen 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, eta ALHAOn (141. zk., 2023ko abenduaren 1ekoa) eta Udaletxeko Iragarki Oholean argitaratu zen, 30 eguneko epean jendaurrean egon zedin. Ez zen erreklamaziorik aurkeztu. Oso-osorik 2024ko urtarrilaren 29ko ALHAOn argitaratua (12. zk.).

**Bigarrena.- Deialdian sartuta dauden partzelak**

Zigoitiko Udalarenak diren eta Gopegiko

constituyen un elemento fundamental para la promoción y fomento de valores de educación ambiental y respecto a la naturaleza, así como para el desarrollo paulatino de estrategias de autoproducción y sensibilización hacia la sostenibilidad. La incorporación en nuestra sociedad de conceptos básicos como soberanía alimentaria, productos locales, alimentación sana, educación para la salud, entre otros, es en buena parte posible gracias a estas iniciativas.

Entre estas iniciativas destinadas a avanzar en términos de sostenibilidad local, ocupan un lugar destacado los huertos ecológicos de Zigoitia que cuentan en un principio con veinte parcelas destinadas a la autorización de uso temporal para particulares, pero que, si surgiera la necesidad y así se decidiera por parte del Ayuntamiento cabe la posibilidad de habilitar un número mayor de parcelas destinadas a su uso como huerto ecológico.

Con base en la ordenanza municipal reguladora del uso y funcionamiento de los huertos ecológicos de Zigoitia, el Ayuntamiento de Zigoitia, realiza la presente convocatoria pública para la obtención de la autorización de uso de parcelas individuales situadas en los huertos municipales ubicados la carretera a Eribe, en la localidad de Gopegi.

**Primera. Objeto de la convocatoria**

La siguiente convocatoria tiene como objeto autorizar el uso de las parcelas disponibles situadas en los huertos municipales de Gopegi por parte del Ayuntamiento de Zigoitia a aquellas personas físicas y asociaciones que lo soliciten y cumplan los requisitos exigidos en esta convocatoria y en la ordenanza municipal reguladora del uso y funcionamiento de los huertos ecológicos de Zigoitia.

El régimen de organización, funcionamiento y disciplinario de los huertos ecológicos municipales está contenido en la Ordenanza reguladora del uso y funcionamiento de los huertos ecológicos de Zigoitia fue aprobada por esta Corporación en Sesión celebrada el día 23 de octubre de 2023, y publicada en el BOTHA (nº 141 de fecha 1 de diciembre de 2023) y en el tablón de Anuncios del Ayuntamiento para su exposición al público durante el plazo de 30 días no habiéndose presentado reclamación alguna. Publicada íntegramente en el BOTHA nº 12 de fecha 29 de enero de 2024.

**Segunda. Parcelas que se incluyen en esta convocatoria**

Se incluyen las parcelas de titularidad del

Cód. Validación: 36PXPMWYW4PLWQSCY9Z3CTTNZ
Verificación: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 2 de 6

(5. poligonoko 139. partzela, Zigoitia) udal-baratzeetatik eskuragarri gisa ezarrita dauden partzelak daude barne.

**Hirugarrena.- Partzela bat erabiltzeko baimenaren onuradun izateko eskakizunak:**

Pertsona fisikoen kasuan:

- Adin nagusikoa izatea eta Zigoitin bizitzea, biztanleen udal-erroldan egonda. Elkarbizitza-unitate bakoitzeko onuradun bakarra baimenduko da.
- Baratze-partzelak erabiltzea baimentzeko deialdian parte hartzea.
- Deialdiaren urtetik bi urte lehenago udal-partzela bat erabiltzeko baimenik jaso ez izatea, Zigoitiko baratzek ekologikoen erabilera eta funtzionamendua arautzeko udal-ordenantzaren 8.3 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.
- Udalarekin zerga-betebeharren ordainketak egunean izatea.

Elkarteen kasuan:

- Zigoitiko Elkarteen Udal Erregistroan izena emanda egotea.
- Partzelak erabiltzeko baimenak adjudikatzeko deialdian parte hartzea, eta hori ordezkatzeko adin nagusiko pertsona izendatzea.
- Proiektua aurkeztea, eta bertan baratzeetan egingo diren jarduerak garatzea, eta justifikatzea jarduera horiek lotuta daudela nekazaritza ekologikoarekin.
- Udalarekin zerga-betebeharren ordainketak egunean izatea.

**Laugarrena.- Partzelak erabiltzeko baimenetarako sarbidea izateko debekuak**

Nahiz eta aurreko artikuluan zehaztutako baldintza guztiak bete, ezingo dute baratze bat erabiltzeko eskaera egin honako egoera hauetan dauden pertsonak:

Ayuntamiento de Zigoitia establezca como disponibles en los huertos municipales de Zigoitia, en Gopegi (parcela 139 del polígono 5).

**Tercera. Requisitos para ser beneficiario o beneficiaria de la autorización de uso de una parcela:**

En caso de personas físicas:

- Ser mayor de edad y residir en Zigoitia, figurando en el padrón municipal de habitantes. Solo se permitirá una persona beneficiaria por unidad convivencial.
- Participar en la convocatoria para la autorización de uso de parcelas de huertos.
- No haber tenido una autorización de uso de una parcela municipal en los dos años anteriores al de la convocatoria, sin perjuicio de lo establecido en el párrafo tercero del artículo 8.3 de la Ordenanza municipal reguladora del uso y funcionamiento de los huertos ecológicos de Zigoitia.
- Estar al corriente del pago de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento.

En caso de asociaciones:

- Estar inscritas en el Registro municipal de Asociaciones de Zigoitia.
- Participar en la convocatoria para la adjudicación de autorizaciones de uso de parcelas, designando la persona mayor de edad representante de la misma.
- Presentar su proyecto, en el que desarrollen las actividades a realizar en los huertos, con justificación de que sus actividades están relacionadas con la agricultura ecológica.
- Estar al corriente del pago de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento.

**Cuarta. Prohibiciones para acceder a autorizaciones de uso de las parcelas**

Aunque se reúnan todas las condiciones definidas en el artículo anterior, no podrán optar al uso de un huerto las personas que se encuentren en las siguientes circunstancias:

Cód. Validación: 36PXPMWYW4PLWQSCY9Z3CTTNZ
Verificación: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 3 de 6

- Udaleko hiri-baratzeetan beste partzela baten adjudikazioduna izatea.
- Azken bost urteetan erabilera-arauak urratzeagatik udal-partzela baten erabileraren baimena kenduta izana.

- Ser persona adjudicataria de otra parcela en los huertos urbanos municipales.
- Haber sido objeto de la revocación de una autorización de uso de una parcela municipal por incumplimiento de las normas de uso en el plazo de los cinco últimos años.

**Bosgarrena.- Eskaerak, beharrezko dokumentazioa eta aurkezteko lekua**

Interesdunek eskaera bat aurkeztu beharko dute udal-bulegoetan, bulego horietan horretarako emango den eskaera-eredu espezifikoaren bidez, bai eta Udalaren egoitza elektronikoaren bidez ere. Horretarako, bitarteko digitalen bidez berariazko eskaera-inprimakia aurkeztu beharko dute, beteta, eta www.zigoitia.eus web-orrian egongo da eskuragarri.

Eskaerarekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren edo legez hura ordezkatzen duen agiriaren fotokopia.
- Elkarteen kasuan, eskaera sinatzen duenaren ordezkaritza-ahalordea eta ordezkariaren NANaren fotokopia.
- Elkarteen kasuan, baratzeetan egin beharreko jarduerak azaltzen dituen proiektua, jarduera horiek nekazaritza ekologikoarekin lotuta daudela justifikatuz. Gutxienez honako eskema hau jarraituko du: helburuak, hartzaileak, jardueren deskribapena eta garapena, ebaluazio-proposamena, proiektuaren eragin potentzialaren maila, bideragarritasun teknikoa, sormena.
- Eskaera-inprimakian eskatzen diren dokumentuak.

Informazio gehiago hemen: 945 464041 telefono-zenbakian eta www.zigoitia.eus web-orrian.

**Quinta. Solicitudes, documentación necesaria y lugar de presentación**

Las personas interesadas deberán presentar una solicitud en las oficinas municipales, a través del modelo específico de solicitud que a tales efectos se facilitará en las citadas oficinas, así como a través de la sede electrónica del Ayuntamiento presentando por medios digitales el impreso de solicitud específico cumplimentado que estará disponible en la página web municipal www.zigoitia.eus.

A la solicitud se deberán acompañar, además, los siguientes documentos:

- Fotocopia del DNI o documento que legalmente le sustituya.
- En caso de asociaciones, acreditación del poder de representación de quien firma la instancia y fotocopia del DNI del representante.
- En caso de asociaciones, proyecto en el que desarrollen las actividades a realizar en los huertos con justificación de que estas están relacionadas con la agricultura ecológica, siguiente como mínimo siguiente esquema: objetivos, destinatarios, descripción y desarrollo de actividades, propuesta de evaluación, grado de repercusión potencial del proyecto, viabilidad técnica, creatividad.
- Aquellos documentos que se exijan en el formulario de solicitud.

Más información: en el teléfono 945 464041 y en www.zigoitia.eus.

**Seigarrena.- Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

**Sexta. Plazo de presentación de solicitudes**

El plazo límite para presentar solicitudes será de 30 días naturales a partir de la publicación de esta convocatoria en el BOTHA.

Cod. Validación: 36PXPMWYW4PLWQSCY9Z3CTTNZ
Verificación: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 4 de 6

| | |
|---|---|
| Eskaera aurkezteko epea amaituta, onartu eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda jendaurrean jarriko da udalaren web-orrian eta iragarki-taulan, baztertzeko arrazoia adierazita. | Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, se expondrá al público en la página web municipal y en el tablón de anuncios, la lista provisional de las personas admitidas y excluidas, señalando la causa de exclusión. |
| Ondoren, 15 egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko edo aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko. | A continuación, se abrirá un plazo de 15 días hábiles, para la presentación de reclamaciones o subsanar la documentación aportada. |
| Erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutako eskaeren behin betiko zerrenda eta zozketatuko diren partzela erabilgarrien zerrenda argitaratuko dira. | Resueltas las reclamaciones se publicará la lista definitiva de solicitudes admitidas y el listado de parcelas disponibles que se sortearán. |
| Zerrendan zozketara aurkezteko zenbakia agertuko da, zozketaren eguna eta ordua adieraziz. | En la lista aparecerá el número con el que se concurre al sorteo, indicando día y hora de este. |
| **Zazpigarrena.- Baimena ematea** | **Séptima. Otorgamiento de la autorización** |
| Udal-baratze ekologikoak erabiltzeko baimenak pertsona fisikoei eta elkarte eskatzaileei emango zaizkie, onartutako eskabideen artean erabilgarri dauden partzelak zozketatuz. | Las autorizaciones de uso de los huertos ecológicos municipales se concederán a favor de las personas físicas y asociaciones solicitantes mediante sorteo de las parcelas disponibles entre las solicitudes admitidas. |
| Udalak lehentasuna emango die beren etxebizitzan nekazaritza-lurrik ez duten bizikidetza-unitateei. | El Ayuntamiento priorizará la autorización de uso a aquellas unidades convivenciales que no disponen de terreno agrícola en su vivienda. |
| Zozketa akta batean jasoko da, eta emaitza jendaurrean jarriko da, Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian kontsulta dadin. | El sorteo se reflejará en un acta y el resultado se hará público para su consulta en el tablón de anuncios y en la página web del ayuntamiento. |
| Zozketa egin ondoren, baratzea erabiltzeko baimena jaso duten pertsonei dagokien partzela jakinaraziko zaie. | Una vez efectuado el sorteo, a las personas a las que haya correspondido la autorización de uso de una huerta, se les notificará la parcela cuyo uso les corresponde. |
| Udal-baratze ekologiko bat erabiltzeko baimena adjudikatzen duen administrazio-ebazpenak Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean adierazitako alderdiak jaso beharko ditu. Alkatetzak edo, hala badagokio, horretarako eskuordetutako zinegotzigoak emango du, eta amaiera emango dio administrazio-bideari. Ebazpen horren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen agintariari berari, edo, hala badagokio, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. | La resolución administrativa por la que se adjudique la autorización de uso de un huerto ecológico municipal deberá contener los extremos señalados en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las administraciones públicas. Se dictará por alcaldía o en su caso la concejalía delegada a tal efecto y pondrá fin a la vía administrativa. Contra dicha resolución cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante la misma autoridad que dictó aquélla, o, en su caso, recurso contencioso-administrativo. |
| **Zortzigarrena.- Erabiltzeko baimenaren iraupena** | **Octava. Duración de la autorización de uso** |
| Baimenek gehienez ere lau urteko | Las autorizaciones tendrán un plazo de vigencia máximo e improrrogable de cuatro años |

Cód. Validación: 36PXPMWYW4PLWQSCY9Z3CTTNZ | Verificación: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 5 de 6

indarraldia izango dute, eta ezin izango da luzatu, hargatik eragotzi gabe Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92.4 artikuluan arautuatko baliogabetze-kasuak eta Zigoitiko baratze ekologikoen erabilera eta funtzionamendua arautzen duen udal-ordenantzan ezarritakoa.

**Bederatzigarrena.- Tasak ordaintzea**

Udal-partzelak erabiltzeko baimena emateko, jabari publikoko ondasunak okupatzeagatiko tasa ordaindu beharko da, kasuan kasuko zerga-ordenantzetan ezarritakoaren arabera. Ez ordaintzeak erabilera-baimena baliogabetzea ekarriko du.

Tasa honela ordainduko da:

- Aprobetxamenduaren lehen urtean: legez ezarritako epeetan eta baimenean zehaztutako moduan.
- Hurrengo urteetan, tasa honen errolda edo matrikuletan sartu ondoren, urte naturalen arabera, ordainagiri bidez.

**Hamargarrena.- Aplikatu beharreko araudia**

Oinarri hauetan ezarri ez denari dagokionez, honako hauetan xedatutakoa bete beharko da: Zigoitiko baratze ekologikoen erabilera eta funtzionamendua arautzen duen udal-ordenantzan, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean edo horiek ordezten dituzten arauetan, eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA**

sin perjuicio de los casos de revocación regulados en el artículo 92.4 Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas y de lo establecido en la Ordenanza municipal reguladora del uso y funcionamiento de los huertos ecológicos de Zigoitia.

**Novena. Abono de tasas**

La autorización de uso de las parcelas municipales estará sujeta al pago de la correspondiente tasa por ocupación de bienes de dominio público de acuerdo con lo que se establezca en las correspondientes ordenanzas fiscales. Su impago será causa de revocación de la autorización de uso.

El ingreso de la tasa se realizará:

- En el primer año del aprovechamiento: en los plazos legalmente establecidos y en la forma que se determine en la autorización.
- En los sucesivos años, una vez incluidas en los correspondientes padrones o matrículas de esta tasa, por años naturales, mediante recibo.

**Décima. Normativa aplicable**

En lo no establecido en estas bases, habrá de estarse a lo dispuesto en la ordenanza municipal reguladora del uso y funcionamiento de los huertos ecológicos de Zigoitia, en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas, en el Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, en la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o normas que sustituyan a las anteriores, y en el resto de normativa que sea de aplicación.

**DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**

Cód. Validación: 36PXPMWYW4PLWQSCY9Z3CTTNZ
Verificación: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 6 de 6


Calle Bengolarra, 1, Ondategi. 01138 (Araba). Tfno. 945464041. Fax. 945464052. Web: https://www.zigoitia.eus/